



**DEIALDIA, OFIZIAL ADMINISTRARIAREN ETA OFIZIAL ADMINISTRARI
OSAGARRIDUNAREN 42 PLAZA LEKUALDATZE-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO,
IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA
ARITZEKO
KALIFIKAZIO-EPAIMAHAIA ALDATZEA**

Giza Baliabideetako zuzendariak honako ebazpen hau onetsi zuen 2025eko azaroaren 17an:

Bat etorrita Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko ofizial administrariaren eta ofizial administrari osagarridunaren 42 plaza oposizio bidez betetzeko deialdiaren oinarrien bosgarren oinarriarekin –deialdi hori Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko maiatzaren 19ko erabakiaren bidez onetsi zen, eta 2025eko 112. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, ekainaren 5ekoan, argitaratu zen–, honako hau EBATZI DUT:

1.–Epaimahaia aldatzea, jarraian aipatzen den behin betiko osaera ezarrita:

Epaimahaiburua: Xabier Burgui Vergara, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria.

Epaimahaiburu ordezkia: Aitor Navarro Aristorena, Iruñeko Udaleko Ogasuneko eta Kontratazio Publiko Arduratsuko Alorreko zuzendaria.

Epaimahaikidea: Fernando Nuin Gurbindo, Langileen Batzordeko ordezkaria, batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkia: Asis Barberá Bustamante, Langileen Batzordeko ordezkaria, batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide-idazkaria: Beatriz Martínez Buldain, Iruñeko Udaleko giza baliabideetako teknikaria.

Idazkari ordezkia: Raquel Pérez García, Iruñeko Udaleko giza baliabideetako teknikaria.

2.- Agintzea ebazpen hau Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitara eman dadin.

Ebazpen honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da:

- BERRAZTERTZEKO errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.



- GORA JOTZEKO errekurtoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta hortik aitzina.
- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-errekurtoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, BI HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2025eko azaroaren 17an.- Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.